

OLENTZARO

Bilbo, egoitza, 1995-XI-30

José Antonio Arana Martija

Gaur Gabonetako usaia datorkigu, bai Haur jaioberriari elizkizunetan eskaintzen zaion intsentsuarena, baita Gabon Gabeko afariena, familia askok gozatu ezin izango dutena, tamalez. Olentzaro jatun eta tripa-zainak gogoratzen digu urtero euskaldunok daukagun zaletasuna, oso berezia baita pertsonaia hau beste kulturetako mitoak ez baidute halako konnotaziorik.

Olentzaro, Olentzero, Orantzaro... eta beste izen batzuk azaltzen zaizkigu, sua egiteko ikazkina denarentzat. *Olenzaro* izena aipatzen digu Lopez Isastikoak XVII. mendean. Garai edo une onaren aroa dela esaten dute batzuk, ez beharrez pertsonaia mitologikoarekin lotuta. Baina badaude beste argibide etimologiko batzuk ere ohitura edo ekanduekin zerikusirik dutenak: "Oles" hitzetik omen dator, erronda kantuak baitira olesak. Hemen dugun Bittor Kapanagaren herrian, Otxandion, "olez olez ibili" esaten zen baserriz baserri errondan kantuz zenbiltzanak adierazteko. Azkuek ere badiosku "olesa ate-jotea" dela. Baina badago Olentzaroren izena pertsonaiaekin lotzen duena ere edo hobe esateko kanpoko kulturatik datorkigula baieztatzen duena: "Olen" hitza Frantziako "Noël"en metatesis bat dela diosku Seber Altubek. Gogora dezagun *Noelak* idatzi zituela XVII. mendean Joannes Etxeberrik.*

Izenaren etimologiatik eta esanguratik at eginda, esan dezagun gure Olentzaroren izaera oso tipikoa dela. Atxekitzen zaizkion hainbat izaerako osagarrietatik bat, ikazkina izatea da. Eta honek bai baduela esangura etnologikoa: sua egiteko egur-ikatza prestatzen ari da ikazkina mendian. Eta suak dauka esangura nabarmena gure etnologian. Gabon aro honetan eguzkia hiltzen doala uste zuten gure arbasoak eta nolabait argiaren ahulezian sua biztu behar zelakoan zeuden. Horregatik sutondoan enborra, subila, sutan jarri behar zen eta hortik dator Gabon aroari subilaroa deitzea. Gabon hitza aipatu dut. Noche Buena-ren kalkoa da gure hitz hau. Ez, ordea, *Eguberri* Navidad azaltzeko erabiltzen dugun hitza. Hau gure-gurea da, "nueva luz" edo antzerako kontzeptu etnologikoa azaltzeko erabili dena. Argi berria bizten zaigu Gabonetan, gehitzen-gehitzen ekainera helduko dena: abenduko solstiziotik udako solstiziora doana. Indargabeko argitik argiaren osotasunera helduko dena. Eguberrian sua hilda geratzen diren txinpartetatik sortuko da su berria, Anbotoko Mariren hauspoak biztua.

* Badaude gaia aztertu duten beste euskaltzain batzuk ere: Manuel Lekuona eta Jose Maria Satrustegi, besteak beste.

Ez noa nire aurkezpentxo hau gehiago luzatzera. Baina ezin dut kolkoan gorde eta esan gabe utzi Euskaltzaindiak pozik uzten duela areto hau Olentzaro eta su berriaren aurkezpena egiteko, eta are gehiago bihotzez eskertzen duela Olentzaro elkarteak eskaintzen dion diruiturria.

Mila esker, eta Eguberri eta Urteberri on bat ospa ditzazuela.